

2015

KULTUR EKINTZA

[donostiakultura.com](http://donostiakultura.com)

Donostia Kulturako Kultur Ekintza sailak zuzentzen dituen kultur etxeetako datuak xehatuko ditugu jarraian, bai eta urtean zehar Kultur Ekintzaren baitan burututako hainbat jarduera ere.

Datu orokorrek beste behin ere erakutsi digute Donostiako kultur etxeek auzoetako egunerokoan errotuta daudela eta hiritarrentzat erreferentzia eta elkargune direla.

Guztira, **1.322.000** bisita baino gehiago izan zituzten kultur etxeek.

Datuak xehatzen hasita, **3.470** jarduera programatu zituzten kultur etxeek 2015. urtean zehar eta jarduera horietan **319.000 lagunek** parte hartu zuten. 2014ko datuekin alderatuta nabarmen egin zuten gora; 400 jarduera gehiago burutu ziren eta horietan ia 54.000 lagun gehiagok hartu zuten parte.

Jarraian, Kultur Ekintza sailak antolatu, kudeatu eta elkarlanean burutu zituen jarduera nabarmenenak jaso da.

## OLATU TALKA

Aipamen berezia merezi du 2015eko Olatu Talkak, bai izan zuen arrakastagatik bai eta antolakuntza aldetik eman ziren aurrerapausoengatik ere.

Batetik, eguraldia lagun, Olatu Talkak antolatutako jarduerak erantzun ikaragarria jaso zuten: **34.000 lagunek** parte hartu zuten, **2.000 eragile aktibo** inplikatu ziren eta **200 jarduera** inguru burutu ziren. Sorkuntzan, hiritarren konpromiso, inplikazio eta izaera aktiboaren erakusgarri nabarmenak dira datu horiek.

Seigarren urtez jarraian, herritarrek, elkarteek eta hainbat eragilek bikain erantzun zioten Olatu Talkari, beti ere, parte-hartze kultura eta ezagutza partekatzearen aldeko apustu irmoa mantenduz.



Olatu Talka



Olatu Talka



Olatu Talka

Bestetik, 2015eko jaialdian, Donostia Kulturak eta Donostia 2016k lankidetzan kudeatu eta antolatu zuten Olatu Talka. 2017tik aurrera Donostia Kulturak hartuko duenez jaialdiaren antolaketa osorik beregaina, trantsizio-epe bat ireki zen 2015ean, esku-aldaketa hori modu egokian gauzatzeko, hori izango baita 2016ko Hiriburutzak Donostian utziko duen ondareetako bat.

Olatu Talkak auzoetan presentzia handiagoa izan zuen, aurreko urteetan auzoetako herritarrek egin zuten eskaerari erantzunez, beti ere Kultur Etxeen inplikazioarekin. Hori da, besteak beste, Kultur Ekintza sailak Olatu Talkaren antolaketa hartzeko arrazoietako bat, sail horrek Donostiako Kultur Etxeen kudeaketaren eta koordinazioaren ardura baitarama eta deszentralizatua den neurrian, auzoetako ekintzen dinamizazioa eta ikusgarritasuna ahalbidetzen dituelako.


Jarraian Olatu Talkan burututako zenbait jardura:

**Huts uneak** egitasmoa, egun hutsik dauden merkataritza lokaletan jardura artistikoak programatuz, hiriko kaleak dinamizatu eta oinarrizko kulturari formatu eta gune berriak eskaintzeko jaio zen. Erakusketa, antzerki emanaldi eta animazio tailerrak izan ziren ikusgai hiru lokaletan. Datozen jaialdietan Donostiako Sustapenaren laguntzaz Huts Uneak programaren hazkunde nabarmena espero da.


Kontxako arkupeak beste modu batean gozatzeko aukera dagoela erakutsi zuen **Kontxa Gau Market** jarduerak. 50 salmenta postu, musika zuzenean, uda giroa, gau zoragarria eta 6.000 lagun inguru hurbildu ziren Kontxako Gau Marketera, jakinmina eta interesa asetzera.

Uliarako igoeran dagoen udal hazitegi ohiak sekretu bitxiak gordetzen ditu. Arkitektura ondare diren ur biltegi harrigarriak eta Uliako auzo elkarteak kudeatzen duen **Uliako Lore-baratzak** parkeak eskaintzen dituen guneak oso musika emanaldi berezien bitartez disfrutatu zituzten 500 hiritar baino gehiagok.


Egia auzoko haurren ikastolarako joan etorriak ahalik eta era autonomoenean eta seguruenean egin ahal izateko ahalduntzea helburu, auzoko elkarte eta hiritarren parte-hartze masiboa jaso zuen jardura izan zen **Egia Segurua**. Auzolanean eta jai-giroan euren auzoa eraldatu zuten egitarrek.



Olatu Talka



Olatu Talka



Olatu Talka

Sagues argiz eta kolorez josi zuten **Sagues Roller Fest** jaialdiaz disfrutatzen gerturatu ziren 1.000 gazteek. Longboard erakustaldia, kontzertuak eta, batez ere, puntako teknologia eta roller derby-a uztartu zituen Openledroller jardueraz gozatu ondoren, Roller Disco festan dantzatzeko aukera paregabea izan zen.

**Kontzertour** ekimen musikaren barnean, musika estilo ugari jorratu eta disfrutatu ziren, Donostiako auzoetako tabernetara eta komertzioetara talde eta bakarlariekin zuzenean musika eramanez eta giro aparta sortuz. Stringedwood musika elkarte eta Easo Musika eskola batuz, musika jaialdi ahaztezinaz disfrutatu zuten 300 pertsonak Miramongo basoan, **Basoka** egitasmoan.



Literaktum

## LITERAKTUM

Literaktum jaialdiak hamaika egunetan 30 literatur proposamen eta 50 protagonista baino gehiago bildu zituen. Literaktum, literaturaz hainbat ikuspegitik, zenbait hizkuntzaren bitartez eta formatu desberdinetan gozatzeko proposamena da, sarean eginikoa, energia-batuketara, hirian zehar hedatzen dena.

2015. urteko jaialdian nabarmentzekoak izan ziren, batetik, euskararen eta gaztelaren arteko erabilera parekatua, eta bestetik, Gipuzkoako Liburu Denden Elkartearen aliantzari esker, burutu ziren hainbat jarduerak.

Aipamen berezia merezi du Donostia 2016rekin burututako lankidetzaren egitasmo arrakastatsua ere: 2015eko Literaktum jaialdiaren amaiera saioa Easo kaleko egoitzan egin zen. Martín Caparrós idazle argentinarrek Ander Izagirre kazetariarekin jardun zuen solasean, *El hambre* izenburuko bere liburuaz. Caparrósek "desberdintasunaren metaforarik bortitzena" deitzen dion horren interesei eta motibazioei buruzko gogoetek ez zuten hotz utzi entzutera joandako entzule andana.


Bestetik, Alderdi Ederren karpa bat jarri zen, irakurgune moduan, eta bertatik, egungo literaturan irakurle gehien dituzten idazleak pasatu ziren; tartean, Almudena Grandes eta Ramon Saizarbitoria.



Literaktum

## DONOSTIKLUBA

Donostiaklubak hamar urte bete zituen 2015ean, eta behar bezala ospatu zen. Jaialdi berezia izan zen eta 13.200 lagun inguruk gozatu zuten bertako musikarekin. Aipatzekoa da, 2.400 pertsona bildu zituen Musikaren Eguna, Loiola kalean, eta bertako taldeekin egindako jaialdia.



Donostikluba

Donostikluba jaialdia edo zirkuitua hamarkada honetan garatzen joan da. Honako hauek dira bere eginkizunak edo helburuak: musika independenteari eta alternatiboari leku egitea kultur etxeetako eta gainerako guneetako programazioan; hirian musikaren inguruan dabilzan kolektibo independenteei babesa eta laguntza ematea jaialdi txikiak aurrera ateratzeko; musika programazio jarraitua duten klub edo aretoak zirkuituan integratzea eta bertako musika taldeak sustatzea, bai zirkuituko aurrekontzertuak eginez bai auzoetako taberna eta espazio ezberdinetan kontzertuak eskainiz.

## MUSIKA PARKEAN

Urtetik urtera sustraitzen ari da Musika Parkean ekitaldia: La Salsarak eta Donostia Kulturak antolatutako kutsu ingeleseko ekitaldia. Inguruan ditugun leku irekien erabilera gizabidetsua sustatu nahi duen kontzertu zikloa da eta ezinbestekoa da eguraldiaren laguntza.

2015ean zirrara handia sortu zen Musika Parkean ekitaldiaren inguruan, batik bat, sare sozialetan, baina zaleen atsekaberako kontzertu bakarra egin ahal izan zen, Miramar Jauregian, antolatutako beste guztiak bertan behera gelditu baitziren, eguraldi txarra medio. Miramarren, hala ere, 1.800 lagun bildu ziren aurreikuspen guztiak gaindituz.


## ANTZERKIA KALEAN

Donostiako auzoetako plazetan, kaleetan eta parkeetan kale antzerkiaz gozatzeko aukera izan zen 2015ean ere, eta 11.500 lagunek proposamena aprobetxatu zuten. 2014ko datuekin alderatuta, kopurua dezente igo da, orduan, 7.900 ikusle izan baitziren kale antzerkia jaialdian.

2015ean, orotara, 16 konpainiek, 38 emanaldi egin zituzten 29 antzezan aurkeztuz. Jaialdia hiriko erdialdean eta hainbat auzoetan izan zen, eta haurrei eta familiei zuzendutako proposamenez aparte, helduentzako antzezanak ere izan ziren.



Donostikluba



Musika Parkean



Antzerkia kalean

## POLTSIKO ANTZERKIA

Formatu txiki eta ertaineko antzerki-ikusbizuzen erakustaldiak 2.100 lagun erakarri zituen hiriko tabernatan eta lokaletan izandako 27 emanaldietan. Poltsiko antzerkia urtetik urtera sendotzen doa, eta gehienbat publiko gazteari zuzenduta dago. Honako xedea du: gune eszeniko tradizioaletara joateko ohitura handirik ez duten ikusleak barietate-antzerkira erakartzea, antzerki-saioak publikoengandik hurbil dauden eremu eta tokietan programatzea, ohiko antzeztokiak ez izan arren.

## MUSIKAGELA

2015. urtean, Musikagela zerbitzua erabat eraldatu zen. Entsegurako lokalak eskaintzea ez ezik, tokiko musikarekin lotutako beste hainbat eremutara zabaldu zuen bere jarduna, eta horrez gain, gune berri bat ireki zuen Intxaurren Kultur Etxean.

Zerbitzuak dinamika garrantzitsua garatu zuen, ikastaroak, *materclass*-ak, tailerrak eta abar eskainiz. Halaber, nabarmentzekoa da zuzeneko kontzertuetan soinua jartzeko ekipoak eta grabazio estudioak izan zuten harrera. Zuzeneko kontzertuek geroz eta areto gehiago dituen musika-zirkuitu batean jotzeko aukera eman zieten musika taldeei. Zirkuituaren barruan jotzeko aukera emateaz gain, taldeen sustapenerako bideo-elkarrizketak grabatu ziren. Egian soilik, Le Bukowski, Dabadaba, La Taberna eta Apal Denda aretoek parte hartu dute zirkuitu honetan. Gainera, bost gela intsonorizatu ziren, bertan, noizbehinkako taldeek zein bertako taldeek jotzeko aukera izan zuten. Zerbitzua, asko hobetu zen 2015ean eta aipatutakoaz aparte, lokalak erabiltzeko ordutegia luzatu zen.

## IKASTAROAK


Donostia Kulturak Kultur Etxeetan eskaintzen dituen ikastaroek hiritarren erantzun ezin hobea jaso dute, aurten ere. 2015-2016 kanpainan 570 ikastarotan 8.000 lagun baino gehiagok hartu zuten parte. **Emakumezkoak izan ziren gehiengoa ikastaroetan, eskaini ziren lau plazetatik, hiru, emakumeek bete baitzituzten, hau da, %75 a.** Beraz, Donostia Kulturak eskaintzen dituen ikastaroak oso errotuta daude hiritarren artean, batik bat, emakumeen artean.



Poltsiko Antzerkia



Musikagela



Ikastaroak

Ikastaroak errotuta egotearen arrazoen artean honakoak aipa daitezke:

Batetik, ikastaroen aniztasuna, bai formatuen aukeraren aldetik (urte osokoak, lauhilekoak, egile ikastaroak, haur eta gazteentzako ikastaroak...) bai eta edukien aukeraren aldetik ere (arte plastikoak, komunikazioa, arte eszenikoak, literatura...).

Bestetik, ikastaroetan hiritarrei parte-hartzeko ematen zaien aukera. Ikastaroen egitura oso parte-hartzailea izan ohi da, bere formatuaren aldetik (klase oso aktiboak), eta ikastaroak planteatzeko momentuan hiritarren iradokizunak eta proposamenak kontutan hartu ziren (urteetan jasotako balorazioak aintzat hartuta, baita heltzen diren proposamenak gogoan hartuta ere).

## MUSIKA SAKRATUA

Ziklo honen helburu nagusia da gizakiak bere espiritualitatea musikaren bitartez nola adierazten duen erakustea hiritarrei, ahalik eta programa anitzenaren bidez. Honela, 1.350 lagunek gozatu zuten eskainitako sei kontzertuez, beti ere, euskal talde edo abesbatzekin aurrera eramanak.



Musika Sakratua

## DATUAK

<b>JARDUERAK</b>		
	<b>KOPURUA</b>	<b>ERABILTZAILEAK</b>
<b>GUZTIRA</b>	3.479	319.079
Antzerkia	185	24.654
Dantza	60	11.372
Bideoa	221	10.795
Musika	257	50.803
Hitzaldiak	221	13.628
Erakusketak	106	130.982
Elkarteen bilerak eta jarduerak	1.457	42.122
Aretoen alokairuak	484	22.200
Liburutegiko jarduerak	428	8.421
Besteak	60	4.102
<b>SERVICIOS</b>		
	<b>KOPURUA</b>	<b>ERABILTZAILEAK</b>
<b>GUZTIRA</b>	2.400	734.551
Liburutegiko bisitaria	627.216	
Haurtxoko	713	22.718
Gazteleku	850	26.477
Plus 55	391	15.827
Ikasgela		2.760
Kzgunea		29.130
IT Txartela	399	4.311
Musikagela	32	5.920
Bideo tailerrak (ekoizpenak eta parte hartzaileak)	15	192



## IKASTAROAK

	<b>Ikastaroak</b>	<b>Personas usuarias</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Hombres</b>
<b>GUZTIRA</b>	913	10.543		
Ikastaroak	570	8.049	6.063	1.986
Ikastaroak KZgune	343	2.494		